



Karmele Alapont - Alaia Ugalde
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

Fermin Etxegoien 2

Sarrera 3

Urpekariak

• Kokapena 4

• Gaia 4

• Argumentua 5

• Gertakizun nagusiak 5

• Egituraketa 6

• Pertsonaiak 6

• Baliabideak 7

• Iritzia 9

Bibliografia - Webgrafia 10

FERMIN ETXEGOIEN

Fermin Etxegoien 1966an Oñatin (Gipuzkoa) jaiotako euskal gidoilari, idazle, kazetari eta irrati esataria da. Hala ere, beste ezeren gainetik kazetaritzat du bere burua. Ikasketa guztiak gazteleraz eginda ere, lanean euskaldundu zen. Gaur egun, bete-betean emana dago literaturari.



2010. urtean Euskadi Saria eskuratu zuen *Autokarabana* obrarekin. Hala ere, telebistaren atzeko aldean lanean jardun du batez ere. Euskal Telebistako saio ezagun askotan bere izena azaltzen da; besteak beste, *Doctor Livingstone*, *Kalaka* eta *Bisitaria*.

Hiru liburu argitaratu ditu, lehenik *Neurona eta zeurona*, bigarrena *Autokarabana* eta horietako azkena: *Zinegotzia*.

Maila pertsonalean, lehen nobela egin eta Kritika Saria zein Euskadi Saria irabaztea autoestimutxute ikaragarria da. Oharkabe joan izan balitz, ordea, kontrakoa, frustrazio handi samarra. Hori guztia eramaten jakin behar da. Zorionez, Autokarabana-rekin izan dut garaipenaren sentipen hori, baina kontrakoa gertatu zait Zinegotziarekin. Nire bigarren nobela, horrenbeste espero zena, oharkabe pasatu da; kritika txarrak izan ditu eta sekulako egurra eman didate.

Musikatea saioaren arduraduna eta esataria da, eta bere hitzetan:

Musikatea musikaren atea izan daiteke, eta bertan eklektizismo batera jo nahi izaten dut. Musikan, bizitzako beste gauza askotan bezala, sektarismo handia dago eta Musikatea horrekin apurtzeko

saiakera da. Aniztasuna bilatzen dut, oreka baino gehiago. Horregatik, ahal dela, estilo asko; ahal dela, hizkuntzak ere, asko.

Gazteen artean ohikoak izan daitezken gai asko sartu baditu ere, Etxegoienentzat erronka bat izan da eleberri hau idaztea. *“Enbido modura jaso nuen ideia hau, baino ez nuen neure burua genero honetan ikusten”*, aitortu zuen idazleak. Gero, proiektuak seriotasuna hartu zuen, *“hordagoa bota zidaten”*, eta obra ahal ik eta modu serioenean idazten saiatu zen, gazte literatura izanagatik gordintasuna ez kentzeko. Hemen dugu Ferminen lehen gazte-literaturar moldeko lehen nobela: *Urpekariak*.

SARRERA

Urpekariak Fermin Etxegoien idazlearen gazte literaturan egin duen lehenengo lana da, Erein argitaletxearekin plazaratu duena. Obran, Jonan eta bere aita Gironako herri turistiko batera joan dira udako oporretan. L'Estartit herrian ostatu hartu eta gertu dauden Meda uharteetara doaz beren urpekaritza bataioa egitera. Gainera, ama-alaba batzuk ezagutuko dituzte eta bi gazteen artean istorio bat hasiko da. Horrela, Oporraldi bateko istorioa da eta familia barneko harremanena. Maitasun –eta sexuari buruzko– nobela ere bada, baita nerabezaroari buruzkoa ere.

“Aita-semeen artean gertatzen dena islatu nahi izan dut, norabide ani-tzeko erlazioak erakutsiz”, azaldu zuen Etxegoienek. Horrela, euren elkarrizketak, desadostasunak, mutikoaren errebeldia eta bere gurasoen arteko gorabeherak ezagutzeko aukera izango du irakurleak. Aldi berean, 14 urteko mutilaren lehen maitasun istorioak pisua edukiko du eleberrian. *“Horren ondorioz, bere aitaren bakardadea ezagutuko du, eta heldutasunera pauso bat emango du”*, gaineratu zuen. *“Hala ere, aita- semeen arteko talkak modu askotan emango dira”*, jarraitu zuen Etxegoienek. Adibidez, literatura, zinema eta musika erreferentzia ezberdinak dituzte, eta biak dira euskaldun, baina modu ezberdin batean. Hala ere, *“gurasokeriak”* alde batera uzten saiatu da, bere

ustetan jakin behar baita zenbateraino babestu semea. *“Hala ere, beti dago goitik beherako begirada bat”*, onartu zuen Etxegoienek, eta *“didaktismo faltsurik”* ez dagoela gaineratu zuen.

Ibraren izenburua, *Urpekariak*, metafora moduan ere uler daiteke. Bi protagonistak urpekaritza egin dute baina, horretaz gain, murgiltzeak sinbologia bat hartzen du, mutilaren inimiziaz ere hitz egiten baitu, maitasunean eta sexuan. *“Istorioan zehar beste hainbat murgiltze ere egongo dira”*, gaineratu zuen.

“Liburua errealitatetik nahiko hurbil badago ere, lizentzia batzuk hartu ditut, eta Katalunia independente batean kokatzen da, adibidez”, azaldu zuen idazle eta kazetariak.

KOKAPENA

Lehen esan bezala, istorio hau Katalunia independente batean kokatuta dago. Jonan eta bere aita dena, Gironako L’Estartit herrira abiatu dira urpekaritza abentura bat bizitzeko asmoz, Meda uharteetan. Han Jonanek bete-betean biziko ditu hurrengoko egunak, bere gurasoen hirugarren aldiz banandu direla ahaztuta, eta bere aita pozik dago bere semea liluratuta ikusteaz. Baina, aitaren zoriontasunaren artean badago atsekabe puntu bat ere: pozik dago aita, baina atsekabetu egiten du bere semea horrela ikusteak ere, erruki sentimendua bere zainetan dago. Jonan nerabezaroan edo gaztaroan sartzen hasia da, eta prozesua liburuaren haria definitzen joaten da nobela osoan zehar. Era berean, ama-alaba bat ezagutzen dute, beraien arteko sua piztuko duena. Eta, horrela, nobela honetan guraso semearen arteko eztabaidak nagusituko dira, aitaren bakardadea agerian utziz.

GAIA

Urpekaritzan hasiak, aita-semearen arteko dialektika, etortze eta eztabaidak, Jonan-en heldutasun inimiziazio prozesuarekin bat.

ARGUMENTUA

Jonan heldutasun inimizio-prozesuan sartu berria den hamalau urteko gaztea da. Gironako herri txiki batera joan da bere aitarekin urpekaritza abentura bat bizi nahian, Meda uharteetako uretan. L'Estartit herrian ostatuta daudela, aitaren atsekabe eta bakardade sentazioa nabaritzen hasten da. Gurasoak, hirutan bananduta daude, eta gorabehera horiek ere protagonistaren bidaiatxoan azalduko dira. Izan ere, istorio honetan zehar, aita-semearen arteko tira-birak hasiko dira; Jonan alai ikusita, aita ere pozez betetzen da, baina ohikoa den prozesu horretan (gaztaroa) esperientzia berriak bizitzeko asmoz bizi da semea: lehen maitasun istorioa, errebeldiak... Aitaren eskutik askatzen saiatuko da, nahi gabe izan arren, eta horrek aitaren atsekabea pizten du. Horrek ere, desadostasunak eta eztabaidak sortuko ditu beraien harremanean, beraien arteko dialektikan.

GERTAKIZUN NAGUSIAK

Jonan eta bere aita Joxemi oporretan doaz L'Estartit herrira, Katalunia independente batean kokatua. Joxemi eta bere emaztea, Jonan-en ama, elkarri denbora bat ematea erabaki dute. Nahiz eta behin baino gehiagotan banandu beti itzuli egiten dira, baina denbora behar dute beraiantzat eta kasu honetan Joxemirekin geratu da Jonan.

L'Estartit-en Joxemiren lagun baten etxean gelditzen dira, igerilekura sarbide zuzena duen etxeetako bakarra. Hala ere, Joxemik ez zituen oporrak piszinan galdu nahi eta hurrengo goizean buzeatzera joatea erabakitzen dute Meda Uharteetara. Irteera hartan Dael eta bere ama Luus ezagutzen dituzte eta Jonanek eta Joxemik begiz jo zituzten. Haien antzera aste bat emango zuten L'Estartit-en eta berriro elkar ikustea erabakitzen dute, egun batean Jonan eta Dael paseatzera doaz eta beraien artean maitasunezko harreman bat hasten da.

Bitartean, Joxemi Luusengan pentsatzen du, eta benetan zer sentitzen duen eta Jonan-en amarekin duen harremana planteatzen hasten da.

Jonanek Dael eta beraren arteko harremana ondo dagoela pentsatzen du egun batean bere deirik eta mezurik jasotzen ez duenera arte. Luus-ek Joxemi deitu egiten du gertatzen dena azaltzeko, Dael mutil-laguna zuen baina erlazio hori amaitutzat eman zuen, mezu batzuk trukatu ondoren beste aukera bat ematea erabakitzen dutenera arte eta horregatik ez dio Jonani mezurik bidali...

Oporrak bukatu eta Bilbora itzuli baino lehen, Dael eta Luus gizonezkoen etxera doaz agurtzera, eta Jonan benetan pozten da bisita horrekin, inoiz ahaztuko ez duen bidaia horren azken uneak baitira.

EGITURAKETA

Istorioa 12 kapitulutan dago banatua eta modu lineal batean idazten ditu idazleak kontakizunak. Hala ere, batzuetan modu paralelo batean kontatzen ditu istorio batzuk, adibidez:

Bitartean, mundu paralelo batean...

Hondartza gauez, ez erabat bakartia, noski... (105)

PERTSONAIAK

Pertsonaia nagusiak Jonan eta Joxemi dira.

- **Jonan.** Nobelako protagonista da. Waterpolo eta futbola gustuko dituen hamabost urteko gaztea da. Bere aitarekin duen harremana ez da oso estua, ez dizkiote elkarri arazoak kontatzen eta ez dute beraien artean konfidantza gehiegi. Jonanek ez du inoiz neska-lagunik izan eta Dael ezagutzen duenean bere lehen maitasun istorioa bizitzen du.

- **Joxemi.** Jonan-en aita da. Behin baino gehiagotan banandu da bere emazteagandik, baina beti berriro elkartzen ziren. Hala ere, batzuetan denbora bat behar zuten bakoitzak nahi zuena egiteko. Joxemik bere semearekin duen harremana hobetu nahi du eta bere ustez bidaia honen bidez lortuko dute. Luus ezagutzen duenean, hainbat zalantza ditu Jonanen amarekin duen harremanean.

Nahiz eta hauek pertsonaia nagusiak izan, badaude bigarren mailakoak ere. Hala nola:

- **Dael.** Jonanen adineko neskatila kaskamotza da. Bartzelonan jaio zen, baina ama holandarra zuen. Harreman dependiente bat du mutil batekin eta horrek Jonanekin duena korapilatzen du.
- **Luus.** Dael-en ama zen, Holandan jaioa baina Katalunian bizi zena. Bere alabak zuen harremanaz asko arduratzen zen, ez zuelako mutila gustuko. Joxemi eta Jonan L'Estartit-en dauden bitartean harreman ona du Joxemirekin.
- **Jonanen ama.** Nahiz eta ez den agertzen, garrantzi handiko pertsonaia da. Joxemirekin duen harremana Jonanengan eragin zuzena du eta Jonanek gogoan zuen beti.

BALIABIDEAK

Jonan eta aitaren narratzailearen ahotsak josten ditu kontaketa honen pasarte guztiak, hari-argumentu askotarikoak osatzen dituena: gaztearen identitatearen bilaketak, aita-semearen arteko tira-birak, aitaren nora ezak, beraien arteko eztabaidak, desadostasunak, elkarrizketak...

Nobelak aurrera egin ahala, irakurlea konturatzen da argumentu eta pertsonaia solteek badutela benetako erlazio estua: Jonan heldutasun prozesuan dagoen gaztea da, eta horrek dakartzan egoera guztiak bere gain hartzen ditu. Hots, prozesu edo bidai horretan gazteak jasan behar dituen oztopo guztiak

bizitzen ditu, hala nola, lehen maitasun istorioa zein aitarekin hasi berri diren harreman arazoak. Horrek, modu bateko tentsioa sortzen du kontakizuenan, era batean edo bestean kontaturik.

Deskribapenak laburrak eta ez oso zehatzak dira gehienetan, betiere narratzailearen begietatik ikusita, hala nola:

Ama-alabak ematen zuten emakume eta neskatila beltz kaskamotzak... (48)

Narratzailearen ahotsa pertsonaiekiko zein istorioekiko ezartzen dituen erlazio mailen arabera desberdinak dira. Batetik, bi denboraren artean dabil narratzailea: oraina, bizitzen ari diren bidaiako ezaugarri guztiekin, eta lehenaldia, aitak gogoratzen dituen gaztetan bizitako momentu politak. Orobat, pertsonaiekiko hurbiltasunarekin erabiltzen du: ildo nagusia Jonani zuzentzen dio, bigarren pertsonan; hurbilen izan zuen pertsonaia, aita. Horrela,, narratzaileak atzera egiten du memorian, iragana berreskuratzeko eta hark dakartzan sentsazioaz egiten dituen gogoetek, sinesgarritasuna erantsiz.

Elkarrizketak ere nagusitu dira kontaketa osoan zehar, zuzen nahiz zehar estiloan. Estilo zuzenean, adibidez:

—Hondartzak oihanean?

—Horixe baietz! Hondar fineko hondartzak, lasai etzateko... (79)

Zehar estiloan:

Atuna, erantzun zuen mutilak, aitari adarra jotzearren, aita gauza ez zelakoan... (89)

Idazleak irakurleari hitz egiten dio batzuetan:

Ez zeundeten kasu handirik egiten -aizue!- karpeto-betonismo hitza testu honetan lehen aldiz agertu denean eta horregatik agertu behar izan du bigarrenez orain... (95)

IRITZIA

Esku artean dugun nobela honek aita eta seme baten arteko harreman gatazkatsua kontatzen du modu original batean. Gainera, gazteak lehen maitasuna ezagutzeak pertsonaiaren eboluzio bat ikusteko aukera ematen du. Nobela bere sentrazio eta bizipenetan oinarritzen da eta gazte askok bat egin dezakete.

Alde batetik, kontatzen duen istorioa, Jonan bizitzen ari den heldutasun prozesua eta esperientzia berriak egiteko gogoak, hainbat gaztek bizitzen dutena da. Ez bakarrik Jonanen istorioa, maitasun istorioa ere ukitzen du. Egoera horiek, eta gehienbat gaztaro bide horretan, ohikoa da gazteek maitasun istorio berriak bizitzeko gogoen sua piztea. Bizipen berriak edukitzeko beharra sentitzen dute, esperimendu, etab.

Bestalde, nobelaren haria jarraitzea ez da batere zaila, kontakizuna lineala izatea eta denboran aurrera eta atzera ez egiteak gertatzen denaz zailtasunik gabe jabetzea ahalbidetzen du. Hizkuntzaren aldetik, hiztegi aberatsa du, baina ulertzeko erraza da eta hori istorioa jarraitzea errazten duen beste faktore bat da.

Jonan protagonista izateak bere aita eta inguruko pertsonenganako harremanak nolakoak diren oso argi azaltzen du eta honek istorioaren ikuspuntu bat ematen digu.

BIBLIOGRAFIA - WEBGRAFIA

Urpekariak. Fermin Etxegoien. Armiarma.

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2015/11/27/ocio-y-cultura/gurasokeriarik-gabeko-aita-semeei-buruzko-nobela>

https://eu.wikipedia.org/wiki/Fermin_Etxegoien

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/urpekariak/urpekariak.pdf>